

## Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA  
KULTURA SAILA

3374

174/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa.

Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluan eta Gernikako Estatutuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak. Euskararen Erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak aitortzen duenez, herritar guztiak dute euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioarekiko harremanetan (6.1 artikulua). Halaber, 9.1 artikuluan dioenez, Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialak baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela. Bestalde, 14. artikuluan xedatzen den bezala, botere publikoek neurriak hartu beharko dituzte Administrazioan lanean ari direnak euskalduntzako eta, gainera, finkatu beharko dute Administrazioaren plantilletako zein lanpostutan den nahitaezkoa hizkuntza ofizialak jakitea.

Euskal Autonomia Erkidegoak du Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak hornitzeko eskumena, Botere Judizialaren Lege Organikoak Gobernuari horretarako eskumena ematen dion neurri berean. Esleitu zaion eskumen horretan, ezin ukatuzkoa da jardun judizialtan eta izapide prozesualtan hizkuntza propioa erabiltzea auzipetu beharreko pertsonari dagokion defentsa-eskubideari nahitaez lotuta dagoen tresna dela. Espainiak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5ekoa, berretsi du, eta, bestalde, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua jardun judizialtan euskara erabiltzeko bidea ematen du, eta haren eraginkortasuna bermatzen du prozeduran zehar.

Aipatutako arau-esparrua eta printzipioak ditu oinarri Dekretu honek. Haren xedea da hizkuntza-normalkuntzako prozesuan aurrera egitea Justizia Administrazioaren eremuan. Xede hori, bada, Justizia Administrazioa goitik behera berrantolatzeko abian den prozesu garrantzitsuaren baitan kokatu behar da. Berrantolaketa hori gorpuzten hasi da berriki onartutako azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoari esker. Lege horrek Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatu du, eta Bulego Judizial berria ezartzeko legeria prozesala eraldatzen duen azaroaren 3ko 13/2009

## Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

3374

DECRETO 174/2010, de 29 de junio, de Normalización Lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El euskera y el castellano son las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con lo sancionado por los artículos 3 de la Constitución y 6 del Estatuto de Gernika. Nuestra Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, reconoce el derecho de todos los ciudadanos y ciudadanas a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca (artículo 6.1). Su artículo 9.1 establece que todo ciudadano y ciudadana, en sus relaciones con la Administración de Justicia, podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna. El artículo 14 encomienda a los poderes públicos la adopción de medidas para la progresiva euskaldunización del personal al servicio de la Administración y establece la obligación de fijar en las plantillas aquellos puestos en los que es preceptivo el conocimiento de las lenguas oficiales.

Compete a la Comunidad Autónoma la provisión del personal al servicio de la Administración de Justicia, en los mismos términos en que se reserva tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial. Desde tal atribución competencial no puede ignorarse que el uso de la lengua propia en el curso de las actuaciones judiciales y en los trámites procesales es un instrumento inescindible del derecho de defensa que asiste a la persona justificable. España ha ratificado la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, de 5 de noviembre de 1992, y el artículo 231 de la Ley Orgánica del Poder Judicial faculta al uso del euskera en las actuaciones judiciales y garantiza su efectividad en el procedimiento.

En los precitados principios y marco normativo se alza el presente Decreto. Constituye su objeto avanzar en el progreso de la normalización lingüística en el ámbito de la Administración de Justicia. Tal finalidad parte en este momento del horizonte de una importante y radical reorganización de la Administración de Justicia, que ahora se hace factible tras la reciente aprobación de la Ley Orgánica 1/2009, de 3 de noviembre, que modifica la Ley Orgánica del Poder Judicial, y resulta complementaria de la Ley 13/2009, de 3 de noviembre, de reforma de la legis-

Legearen osagarri da. Testu arautzaile horiek, beraz, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak xedutako erreformaren bidez, Justizia Administrazioaren zerbitzuaren prestazioan egindako plangintza burutu dute. Aipatutako legeak V. eta VI. liburu berriak sortu zituen, bulego ofizialaren antolakuntza- eta funtzionamendu-erreginari eta haren zerbitzuko langileen estatutu judizialari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

Ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren eta uztailaren 29ko 152/2008 Dekretuaren ildotik, oraingo honek praktikan gauzatu nahi du koofizialtasun-erregimena, euskal herritarrei zerbitzu hobea eta egokiagoa emate aldera. Berriki egin diren legealdaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berriak abiarazteko beharra direla medio, une honetan ezinbestekoa da aurreko Dekretua –2008ko uztailaren 29koa, alegia– berriro formulatzea. Aurreko araudian jasotako helburuak oinarri hartuta, bideak egokitu dira, helburu horiek modu egonkorrean eta sendoan bete ahal izateko. Horiek horrela, beraz, arau berria ematea aukeratu da, aurrekoaren egitura eta oinarritzko ildoetako batzuk aldatu ahal izateko.

Justizia Administrazioaren eta harentzat lan egiten duten langileen postuen eta zereginen diseinu berriak koofizialtasuna praktikan jartzeko bide ematen du. Betiere, prozesu proportzionatua eta progresiboa izan behar duela ahaztu gabe. Azken xedea auzipetu beharreko pertsonak prozesu judiziala hizkuntza koofizialtako edozeinetan izateko duen eskubidean datza, gutxienez, Justizia Administrazioaren zerbitzuen kudeaketaren eta prestazioaren esparru espezifikoi dagokionez. Orobat, aintzat hartu behar da Dekretuaren muina dela euskararen erabilera sustatzea, batez ere, lehen mailako errealitate eta komunikaziorako oinarritzko hizkuntza gisa. Erabilera hori, baina, prozesu judizial orok eragiten duen komunikazio eta elkarrizketa guztietara zabaldu behar da. Izan ere, hori egin ezean, euskararen erabilera ostrazismora bultzatuko litzateke arlo sozio-juridikoa.

Beraz, adierazitako bi tentsioak bateratu behar dira: batetik, herritarrek hizkuntza propioa erabiltzeko duten eskubideari behar bezala erantzutea, eta, bestetik, hizkuntzak arlo judizialean duen zabalkunde soziologikoa. Oreka hori helburu, lanpostu zehatz batzuk bereiztearen aldeko apustua egin da, lanpostua lortu eta hartan jarduteko hizkuntza-gaitasun zehatz baten arabera euskara-maila izatea eskatzen duten lanpostuetan, hain zuzen ere. Lanpostuak bereizteko prozesuak sektoriala, pixkanakakoa eta planifikatua izan behar du. Halaber, aurreikuspenari eta segurtasun juridikoari lotutako gutxieneko printzipioak bermatze aldera, prozesu horri buruzko informazio osoa sartu behar da lanpostuen zerrendan. Dagokion lanpostuaren zereginetik eta euskararen erabilerak zeregin horietan duen eraginak baldintzatuko dute

lacion procesal para la implantación de la nueva Oficina Judicial. Textos normativos que culminan la planificación efectuada en la prestación del servicio de Administración de Justicia por la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial introducida por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, que creó de nuevo cuño sus Libros V y VI, dedicados al régimen de organización y funcionamiento de la nueva oficina judicial y el estatuto jurídico del personal a su servicio, respectivamente.

En el camino emprendido por los anteriores Decretos 117/2001, de 26 de junio, y 152/2008, de 29 de julio, el actual se dirige a hacer efectivo en la práctica el régimen de cooficialidad, en atención a un mejor y más adecuado servicio a la ciudadanía vasca. Las recientes reformas legales aludidas y la inminente entrada en vigor de la nueva organización de la oficina judicial y su estructura funcional, exigen que en este momento haya de reformularse el anterior Decreto de 29 de julio de 2008. Se parte de los objetivos perseguidos en la anterior normativa, adecuando los cauces para una consecución estable y enraizada de los mismos. Estas razones justifican que se haya optado por una nueva norma que recomponga su estructura y algunas de sus líneas vertebrales.

El nuevo diseño de la Administración de Justicia y de los puestos y tareas del personal a su servicio, posibilita llevar a la práctica la cooficialidad. Sin perder de vista que ha de ser un proceso proporcionado y progresivo. Su finalidad última descansa en el derecho de la persona justiciable al acceso a un proceso judicial en cualquiera de los idiomas cooficiales, al menos en aquellos extremos concernientes al ámbito específico de la gestión y prestación de los servicios de la Administración de Justicia. Y tampoco ha de desconocerse que el Decreto descansa en potenciar el uso del euskera sobre todo como realidad primaria y básica de lengua de comunicación, que igualmente se extiende a la comunicación y diálogo que todo proceso judicial implica. Obviar esta premisa es relegar su uso al ostracismo en el ámbito socio-jurídico.

Han de compatibilizarse las dos tensiones antedichas: la necesaria respuesta al derecho de la ciudadanía al uso de la lengua propia y la penetración sociológica del idioma en el ámbito judicial. En tal equilibrio se apuesta por la singularización de determinados puestos de trabajo, aquéllos para cuyo acceso y desempeño se requiere el conocimiento del euskera según una determinada competencia lingüística. Singularización que ha de ser sectorial, paulatina, planificada y de la que ha de constar completa información en la relación de puestos de trabajo si quieren preservarse mínimos principios de previsión y seguridad jurídica. Si bien la singularización ha de venir determinada por las funciones que integran el puesto de trabajo y la incidencia en ellas del uso del euskera, tal proceso no puede vivir de espaldas a la realidad

bereizketa. Dena den, prozesuak ezin dio bizkarra eman hizkuntzaren ezagutzak eta erabilerak duten gizarte-errealitateari. Fenomeno bi horiek, hain zuzen, bat etorri behar dute. Jardun judizialean euskara erabiltzeko eskariari behar bezala erantzuteko, behar-beharrezkoa da administrazio eskudunak lan-talde elebidunak dituzten zerbitzuak sustatzea. Prozedurak izapidetzean koofizialtasunaren errealitatea islatzeko gai izan behar dute talde horiek. Xedapen hori berenberegiz jaso da testuan, eta, zalantzarik gabe, Justizia Administrazioaren diseinu berriak nabarmen lagundu du horretan.

Arau honetako helburuek nahitaz oinarritu behar dute euskararen ezagutzan gaitzeko eta hizkuntza komunikaziorako tresna gisa erabiltzeko programa propio eta espezifikoa. Jakina, ahalegina ez da soilik Justizia Administrazioaren arloan egin behar –are gehiago, hori ez da eragile nagusia– baina, hala ere, ezin saihestuzkoa da Administrazioaren sektore horretan hartu beharreko konpromisoa. Konpromiso hori gorpuztea du xede, hain zuzen, dekretu honen zati handi batek. Dekretuak behar bezalako eraginkortasuna izan dezan, baina, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plan paralelo bidez eraman beharko da aurrera, plan horiek orokorrak zein Justizia Administrazioarako espezifikoak izanik. Euskararen erabilera arlo zehatz horretan hizkuntzak gizartean duen ezarpenaren isla da. Ildo horretatik, eta geure autonomia-erkidegoan Zuzenbidearen eta Justiziaren arloekin harremana duten diziplina eta lanbideetara heltzeko bidea sustatuz, sendotu egingo dugu hizkuntza-normalkuntza Justizia Administrazioan.

Horiek horrela, Justizia eta Herri Administrazio-ko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko ekainaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK: APLIKAZIO-EREMUA ETA XEDEAK

**1. artikulua.**– Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazio-ko hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautu nahi da, arlo horretan hizkuntzen koofizialtasuna gauzatze aldera.

Dekretu hau Euskadiko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko Plan bat onartuta osatuko da.

**2. artikulua.**– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidego hauetako langileei aplikatuko zaie: Kudeaketa Prozesal eta Administrazio boko kidegoa, Izapidetze Prozesal eta

social del conocimiento y uso del idioma, fenómenos que deben acompañarse. La adecuada respuesta a la demanda del uso del euskera en las actuaciones judiciales no puede satisfacerse sin propiciar desde la Administración competente servicios que integren equipos de trabajo bilingües, capaces de hacer efectiva en la tramitación procedimental la realidad de la cooficialidad. Tal previsión se recoge expresamente en el texto, lo que sin duda viene enormemente facilitado por el nuevo diseño de la administración judicial.

Los objetivos de la presente normativa necesariamente deben sustentarse en unos programas propios y específicos de capacitación en el conocimiento del euskera y el fomento de su uso como lengua propia de comunicación. Sin duda esto no sólo resulta del esfuerzo concreto que a tal efecto debe hacerse en el ámbito de la Administración de Justicia, ni principalmente viene predeterminado por éste, pero no se puede obviar el compromiso que en este sector de la Administración ha de hacerse. A ello obedece una buena parte del presente Decreto, que, en cuanto tal, para su debida eficacia ha de implementarse con planes paralelos de normalización del uso de la lengua, tanto generales como específicos de la Administración de Justicia. El uso del euskera en este concreto ámbito es un reflejo de su implantación social. Por esta vía y por la promoción en la Comunidad Autónoma del acceso a disciplinas y profesiones relacionadas con el mundo del Derecho y la Justicia consolidaremos la normalización lingüística en la Administración de Justicia.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Justicia y Administración Pública y de Cultura, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de junio de 2010,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES: ÁMBITO DE APLICACIÓN Y FINALIDADES

**Artículo 1.**– Es objeto del presente Decreto la regulación del proceso de normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi de cara a hacer realidad en ella la cooficialidad de idiomas.

Dicha regulación, se verá completada mediante la aprobación de un Plan de normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en Euskadi.

**Artículo 2.**– El ámbito de aplicación de este Decreto se circunscribe al personal al servicio de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi perteneciente a los siguientes cuerpos:

Administratiboko kidegoa, Laguntza Judizialeko kidegoa, Auzitegiko Medikuen kidegoa eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoa.

**3. artikulua.**– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan hizkuntza-normalkuntza lortzeko neurriak eremu hauetan arautuko dira:

a) Lanpostu jakin batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea, lanpostuen zerrendan horiei esleitutako funtzio zehatzek euskaraz jakitea eskatzen dutelako.

b) Unitateak katalogatzea, hizkuntza-betebeharrei begira, herritarrekiko harremana zuzenagoa edo zeharkakoagoa den eta laneko harreman-arloa nolakoa den oinarritzat harturik.

c) Horrela, ikusirik unitateak herritarrengandik duen hurbiltasuna eta zenbateraino hartu behar duen parte organo judizialen eta zerbitzu orokorren prozeduretan, baita Fiskaltzaren, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen eta gainerako bulegoen jarduntan ere –betiere Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 530. artikuluan ezarritako eremu funtzionalean–, beharizan batzuk ezartzen dira, eta beharizan horiek dakarte lanpostuak pixkanaka-pixkanaka bereizteko beharra, lanpostuak euskalduntzeko prozesuaren barruan.

d) Euskararen trebatzeko ikastaroen eskaintza arautzea, lanpostuak bereizteko prozesuarekin eta banakako euskara planekin bat etorritz.

e) Bulego judizial eta fiskaletan eta zerbitzu orokorretan euskara erabiltzeko programak arautzea.

f) Lan-talde elebidunak funtzionalki eratzea organo judizial, zerbitzu orokor eta fiskaltza guztietan.

**4. artikulua.**– 1.– Justizia Administrazioaren arloko hizkuntza-normalkuntza pixkanaka-pixkanaka eta modu progresiboan eramango da aurrera, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen trebakuntza eta errealitate soziolingüistikoak sortutako beharra aintzat hartuz.

2.– Euskara jakitea eskatu ahal izango da, dagoen lanpostu-zerrendetan hala ezarrita badago. Gainerako kasuetan, meritu gisa baloratuko da, Botere Judizialaren Lege Organikoan Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoari, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoari, Laguntza Judizialeko kidegoari, eta Auzitegiko Medikuen kidegoari buruz ezarritakoari jarraiki eta kidego horietan sartzearen inguruko 1451/2005 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa, Cuerpo de Auxilio Judicial, Cuerpo de Médicos Forenses y Cuerpo de Ayudantes de Laboratorio.

**Artículo 3.**– Las medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, se regularán en las siguientes esferas:

a) La clasificación de determinados puestos de trabajo como singularizados, al derivarse la exigencia de conocimiento del euskera de las funciones concretas asignadas a los mismos en las relaciones de puestos de trabajo.

b) La catalogación, a efectos de requerimientos lingüísticos, de los distintos tipos de unidades, tomando como base la relación más o menos directa con la ciudadanía y el ámbito relacional en el desempeño de su actividad.

c) Así, según sea el grado de aproximación de la unidad con respecto al público y sus necesidades de participación en los diversos procedimientos de los órganos judiciales, servicios comunes y actuaciones en la Fiscalía, el Instituto Vasco de Medicina Legal y resto de oficinas, siempre en el ámbito funcional dispuesto en el artículo 530 de la Ley Orgánica del Poder Judicial correspondiente a sus funciones y tareas, se marcan unas necesidades de las que se deriva la paulatina singularización de puestos de trabajo, en el proceso de euskaldunización de los mismos.

d) La regulación de la provisión de cursos de capacitación lingüística en euskera, atendiendo al proceso de singularización de puestos de trabajo y a los planes individualizados de euskera.

e) La regulación de programas de uso del euskera en las oficinas judiciales, fiscales y servicios comunes.

f) La constitución funcional de equipos de trabajo bilingües en todos los órganos judiciales, servicios comunes y fiscalías.

**Artículo 4.**– 1.– La normalización lingüística en el ámbito de la Administración de Justicia se realizará de forma paulatina y progresiva, en atención a la capacitación del personal al servicio de la Administración de Justicia y la demanda derivada de la realidad sociolingüística.

2.– En los supuestos en que así venga determinado en las correspondientes relaciones de puestos de trabajo, el conocimiento del euskera será requisito exigible. En el resto de los casos se valorará como mérito en los términos previstos tanto en la Ley Orgánica del Poder Judicial sobre los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y Auxilio Judicial al servicio de la Administración de Justicia y Médicos Forenses, como en el Real Decreto 1451/2005, de acceso a dichos cuerpos.

3.– Hona hemen zein gaitasun maila baloratuko diren, euskaraz jakitea meritutzat jotzen denean, edota eskatuko diren, bereiztutako lanpostuetarako euskaraz jakitea eskatzen denean:

a) Laguntza Judizialeko kidegoan: 2. hizkuntza-eskakizuna.

b) Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoan eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoan: 2. hizkuntza-eskakizuna.

c) Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoan: 3. hizkuntza-eskakizuna.

d) Auzitegiko Medikuen kidegoan: 3. hizkuntza-eskakizuna.

Aipatutako euskara-mailak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako mailekin.

## II. KAPITULUA LEHENTASUNEZKO EREMUAK ETA AURREIKUSPENAK

**5. artikulua.**– 1.– Lanpostuak bereizteko prozesuaren intentsitateak ez du zertan bat etorri organo eta eremu guztietan.

2.– Zerbitzu bakoitzak dituen funtzioen arabera, lehentasun-maila desberdinak esleituko dira. Lehentasunezko organo judizialean eta zerbitzu orokorretan, biziagoa izan daiteke lanpostuak bereizteko prozesuaren erritmoa, eta handiagoa bereiztutako lanpostuen ehunekoak, gainerako organo eta zerbitzuak baino.

3.– Hizkuntzaren ikuspegi huts-hutsetik, plangintza honako lehentasun hauen arabera antolatuko da:

a) Lehentasunezko unitateak: halakotzat joko dira Erregistro Zibilak, herritarrei ahoz nahiz idatziz arreta ematea eginkizun nagusi duten unitateak, baita egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzu orokorrak ere. Horiek horrela, honakoa ezarri da:

– 1. mailako lehentasuna: herritarrei informazio emateko unitateak.

– 2. mailako lehentasuna: bake-epaitegiak eta erregistro zibilak.

– 3. mailako lehentasuna: egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzuak.

b) Lehentasunik ez duten unitateak:

– Unitate Orokorrak: gainerako zerbitzuak edo unitateak, salbu eta lehentasunezkoak jotakoak eta bereziak.

3.– El nivel de competencia en euskera valorable como mérito o exigible en los puestos singularizados, será el siguiente:

a) Cuerpo de Auxilio Judicial: perfil lingüístico 2.

b) Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa, y Cuerpo de Ayudantes de Laboratorio: perfil lingüístico 2.

c) Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa: perfil lingüístico 3.

d) Cuerpo de Médicos Forenses: perfil lingüístico 3.

Los anteriores niveles de competencia lingüística en euskera corresponden a los establecidos en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

## CAPÍTULO II ÁREAS PRIORITARIAS Y PREVISIONES

**Artículo 5.**– 1.– La intensidad del proceso de singularización de puestos no tendrá por qué ser coincidente en todos los órganos y ámbitos.

2.– Se designarán diferentes grados de prioridad dependiendo de las funciones que correspondan a cada unidad o servicio. En los órganos judiciales y servicios comunes prioritarios, la intensidad del ritmo de singularización así como el porcentaje de los mismos podrán superar los calculados para el resto de los órganos y servicios.

3.– Desde un punto de vista estrictamente lingüístico la planificación se clasifica según el siguiente orden de prioridades:

a) Unidades prioritarias: se consideran como tales los Registros Civiles, las unidades cuya función primordial sea la atención, tanto oral como escrita, a la ciudadanía, y los servicios comunes de actos de comunicación y de ejecución que requieran la actuación fuera de la sede judicial. En tal sentido, se establece:

– Prioridad de 1er grado: unidades de información al público.

– Prioridad de 2.º grado: juzgados de paz y registros civiles.

– Prioridad de 3.º grado: servicios de actos de comunicación y de ejecución que requieran la actuación fuera de la sede judicial.

b) Unidades no prioritarias:

– Unidades Generales: el resto de los servicios o unidades, excepto los determinados como prioritarios y los especiales.

– Unitate Bereziak: herritarrekin harreman gutxien duten unitateak: artxiboak, patologia- eta mezularitza-zerbitzuak eta antzekoak.

4.– Herritarrei ahoz nahiz idatziz arreta ematea eginkizun nagusi duten unitateetan, lanpostu guztiak bereiztu ahal izango dira.

5.– Justizia-arloan eskumena duen sailak behar diren neurriak bultzatuko ditu lehentasunezko organo eta zerbitzuetan euskara zerbitzu-hizkuntza nahiz lan-hizkuntza gisa erabil dadin. Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko programak bultzatuko ditu progresiboki organo eta zerbitzu judizialean. Lehentasunezko organo eta zerbitzuetan dihardutenek eta lanpostua euskararen ezagutza handiagoa duten mugape judizialean dutenek lehentasuna izango dute hizkuntza-arloan gaitzeko eta trebatzeko ikastaroetan onartuak izateko, dekretu honen V. eta VI. kapitulu-etan ezarritakoari jarraituz.

6.– Dekretu honen ondoretarako, zerbitzu-hizkuntza da herritarrekiko eta beste administrazioe-kiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza. Ondore berberetarako, lan-hizkuntza da, zerbitzu-hizkuntza gisa ez ezik, administrazioaren barne harremanetan ere erabiltzen den hizkuntza.

**6. artikulua.**– Justizia-arloko eskumena duen sailak egingo du lanpostuen bereizketa, ordezkari gehien duten sindikatuei kontsulta egin ondoren eta hizkuntza-politikan eskumena duen sailak txostena eman eta gero. Lanpostuen zerrenda zehaztu beharko da zer egunetan bereiztu den dagokion lanpostua, betiere, hizkuntza-normalkuntzaren izaera progresibo-arekin bat.

**7. artikulua.**– Dekretu honen aplikazio-eremuko lanpostu-zerrendako lanpostuak bereizteko prozesua Kapitulu honetan ezarritako helburuetara eta lehentasunetara egokituko da.

**8. artikulua.**– 1.– Dekretu honen aplikazio eremuko lanpostuak bereizteko prozesua hamar urteko plangintzaldi batean gauzatuko da, eta plangintzaldi hori bosna urteko bi epealditan banatuko da, aurre-rago Euskadiko Justizia Administrazioan Euskararen Erabilera normalizatzeko Plana epe-banaketa berarekin onartzeko eragozpenik gabe.

2.– Bost urteko epealdi bakoitzaren amaieran, ebaluazio bat egingo da, helburuak zein neurritaraino bete diren ikusteko eta behar diren aldaketak egiteko. Horretarako, justizia-arloan eskumena duen sailak ebaluazio-eta jarraipen-txosten bat egingo du dekretu honen betearazpenari buruz. Emaitzen arabera, administrazioaren baliabideen lehentasunak ezarriko dira, hurrengo epealdirako helburuak lortu ahal izateko. Sindikatuei helaraziko zaie txostena.

– Unidades Especiales: las unidades de menor relación con el público: archivos, servicios de patología, mensajería, y análogos.

4.– En unidades cuya función primordial sea la atención, tanto oral como escrita, a la ciudadanía, se podrán singularizar todos los puestos.

5.– El Departamento competente en materia de Justicia impulsará las medidas oportunas para que en los órganos y servicios prioritarios el euskera pueda usarse tanto como lengua de servicio, como lengua de trabajo. A tal fin, se impulsarán de forma progresiva programas para el fomento del uso del euskera en los diferentes órganos y servicios judiciales. Igualmente, quienes estén destinados en órganos y servicios prioritarios, así como aquéllos cuyos puestos de trabajo pertenezcan a unidades de demarcaciones judiciales con mayor nivel de implantación de conocimiento de euskera, tendrán preferencia en la asignación de cursos de capacitación lingüística en los términos expresados en los Capítulos V y VI del presente Decreto.

6.– A los efectos del presente Decreto se entiende por lengua de servicio la que se utiliza en las relaciones con la ciudadanía y con otras administraciones. A los mismos efectos, se entiende como lengua de trabajo aquella que además de como lengua de servicio se utiliza también en las relaciones internas de la misma Administración.

**Artículo 6.**– La singularización de puestos de trabajo será realizada por el Departamento competente en materia de justicia, previa consulta a las organizaciones sindicales más representativas y previo informe del Departamento competente en materia de política lingüística. En la relación de puestos de trabajo deberá establecerse la fecha en la que, de conformidad con el carácter progresivo de normalización lingüística, quede singularizado el particular puesto.

**Artículo 7.**– La singularización de puestos en las relaciones de puestos de trabajo integrantes del ámbito de aplicación de este Decreto se adecuará a los objetivos y prioridades establecidos en el presente Capítulo.

**Artículo 8.**– 1.– El proceso de singularización de los puestos de trabajo del ámbito de aplicación de este Decreto se realizará en un período de planificación de diez años, que se subdividirá en dos etapas quinquenales, sin perjuicio del Plan de normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en Euskadi con la misma subdivisión temporal.

2.– Al finalizar cada etapa de 5 años, se realizará una evaluación, para comprobar el nivel de cumplimiento de los objetivos y realizar las modificaciones convenientes. A tal fin el Departamento competente en materia de justicia realizará un informe de evaluación y seguimiento de la ejecución del presente Decreto que servirá para priorizar los recursos de la administración en la consecución de las metas fijadas para el siguiente periodo, del que se dará traslado a las organizaciones sindicales.

3.- Ebaluazio- eta jarraipen-txostena hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen sailaren irizpenean jarriko da.

**9. artikulua.**– 1.– Destino-zentro beraren barruan edo mugape judicial bereko destino-zentro guztien multzoaren barruan, zein postu bereiztu behar diren zehazte aldera, haien tamaina egokiagotzat jo ahal denean, ondorengo kontu hauek hartuko dira kontuan:

a) Lanpostuak herritarrekin duen zuzeneko harremanaren maila. Kontu hori lehentasunezkoztat jotzen da.

b) Lanpostuaren erantzukizun-maila, batez ere unitateak antolatzeke eta kontrolatzeko funtzioei dagokienez.

c) Lanpostuaren autonomia-maila, berezko dituen funtzioak eta eginkizunak egiteko orduan.

d) Hizkuntzaren erabilerak lanpostuan egin beharreko eginkizunak betetzean duen garrantzia, kidegoen arabera, prozesuak izapidetzeko, jardunak dokumentatzen laguntzeko eta herritarren kontsulta eta komunikazioei kasu egiteko dituzten egitekoiei dagokienez.

e) Lanpostua betetzean ezartzen diren harremanen maiztasuna eta ezaugarriak, dagokion mugape judiciallean euskararen benetako ezarpenarekin zuzeneko konkordantzia duela.

2.– Euskara jakin beharra baldintzatzen duten eta lanpostuen zerrendan sartuta dauden lanpostuen funtzio nahiz eginkizunen arlo kuantitatiboa nahiz kualitatiboa baloratzeko, artikulua honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren gaiak hartuko dira kontuan. Gainera, bereiztutako lanpostuen egokitasuna eta proportzionaltasuna baloratu beharko dira, mugape judicialaren lurraldean euskarak benetan duen ezarpena kontuan hartuta.

**10. artikulua.**– Lanpostu batek dotazio bat baino gehiago badu eta aurreko artikuluan ezarritako irizpideak nahiko ez badira horietako zein bereiztu behar den zehazteko, lehentasun-irizpide hauek baliatuko dira:

a) Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duen titularraren dotazioa.

b) Hutsik dagoen dotazioa.

c) Postua bereizteko eskatu duen titularraren dotazioa. Eskari asko egonez gero, euskara-maila altuena duen funtzionarioak, edo subsidiarioki, funtzionario-rik gazteenak izango du lehentasuna.

d) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta, euskara-maila altuena duen titularren dotazioa.

3.– El informe de evaluación y seguimiento será sometido a informe del Departamento competente en materia de política lingüística.

**Artículo 9.**– 1.– En orden a determinar los puestos a singularizar dentro de un mismo centro de destino o, dentro del conjunto constituido por todos los centros de destino de una misma demarcación judicial cuando su tamaño pueda considerarse más adecuado, se ponderarán los siguientes aspectos:

a) El grado de relación directa del puesto de trabajo con respecto a la ciudadanía. Este aspecto es considerado prioritario.

b) El grado de responsabilidad del puesto de trabajo, en especial en relación con las funciones de organización y control de las unidades.

